

Kontserba-latak: zergatik birziklatu

Keinu txiki bat aski izaten da horiek birziklatzeko, eta mesede handia egiten zaio ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari oro har

Ireki, barrenean dakarrena janez edo edanez gozatu, eta birziklatu. Hori izan behar luke kontserba-lata baten edo edari-lata baten ibilbide naturala. Eta keinu txiki batekin hasten da dena: edukiontzi horian utzita. Latak birziklatzeak hainbat onura dakartza, bai ingurumen arlokoak, bai ekonomikoak eta bai sozialak ere.

Edukiontzi horian lata guztiei ateratzen zaie probetxua

Latorria birziklatzeko erakundeak hau xe esaten du: "Kontserbatarako erabiltzen diren latorrik gehienak altzairuzkoak dira, nahiz eta aluminiozkoak ere badiren". Aluminioa birziklatzeko erakundeak nabardura bat eranstean dio horri, eta esaten du aluminiozko latak gero eta maizago erabiltzen direla, adibidez natillekin, janari prestatuekin eta ogian zabaltzeko gaztekin. Bi erakundeek nabarmentzen dutenez, edukiontzi horian uzten diren lata guztiak berreskuratu eta birziklatu egiten dira altzairutegietan eta galdategietan.

2012. urtean, altzairuzko laten %89 birziklatu ziren Espainiako Estatuan, Ecoacero erakundeak emandako datuen arabera. Hain zuzen ere, altzairuzko ontzi gehien birziklatzen duen herrialdeetako bat da Espainiako Estata. Dena den, oraindik ere badago tartea gauzak hobeki egiteko.

Latak birziklatzeak mesede egiten dio ingurumenari

Kontserbatarako lata bat birziklatzen den aldiro, saihestu egiten da lehengai berriak eta energia erabiltzea. European Metal Packaging (Empac) erakundeak emandako datuen arabera, txatarra soilik erabiliz egiten den altzairuak %75 energia gutxiago behar

du, lehengai birjina bat erabiliz egiten denak baino. Aluminioarekin, berriz, %95eraino igotzen da portzentajea.

Berotegi-efektua eragiten duten gasen isuriak ere murriztu egiten dira latak birziklatuz gero. Ecoacero emandako datuen arabera, birziklatzen den lata bakoitzarekin, utzi egiten zaio CO2 isurtzeari. Zer neurritan? Lata horren pisua 1,5 aldiz biderkatuta. Eta altzairua birziklatzeko ziklo jarraituari esker, bermatu egiten da etorkizuneko belaunaldientzat ere iritsiko direla natura-baliabideak.

Latak gaizki botatzea elkartasunaren aurkako ekintza da

Hondakinak berreskuratu eta birziklatzeko sistema aski konplexua da, eta kostu handia eragiten dio gizarteari. Beraz, lata bat edukiontzi horian utzi beharrean lurrean botata geratzen bada edo zabortege batera iristen bada, gauzak gaizki egiten ariko gara, eta gizabide eta konpromiso gutxi daukagula esan nahiko du.

Lata batek elikagai- edo likido-hondarrak baditu, ez du arazo tekniko as-



korik sortzen, baina eragin egiten dio kudeaketaren kalitateari eta instalazioen eta langileen segurtasunari eta osasunari. Hori dela eta, latak ongi hustuta utziz gero, hobeki birziklatzeko erraztasunak ematen ariko gara.

Hondakin bakoitza dagokion edukiontzian uztea da jokabiderik egokiena, baina gainerako zaborrarekin nahastuta botatzen diren latak ere birzikla daitezke. Hiri Hondakin Solidoak tratatzeko edo konposta egiteko plataren batera iritsi ohi dira nahasian datozen hondakin horiek, eta gehienek izaten dute zabor horiek berreskuratzeko sistemaren bat; esaterako, elektroimanak (altzairua magnetikoa da). Latorrizko kontserbaren bat atzematen badute, litekeena da birziklatzeko zirkuituan sartzea. Egoki-egokiena, dena den, zaborrak ongi bereiztea eta ontziak edukiontzi horian uztea da. Aluminiozko ontziekin are beharrezkoagoa da ongi bereizita jartzea, planta horietan oso-oso gutxi berreskuratu baitituzte, eta ez dagokien lekuan bukatzen dute gehien-gehienean: zabortegetan edo erraustegietan.

Altzairuak eta aluminioak bizitza amaigabea dute

Altzairuak eta aluminioak ez dute ezagarririk edo propietaterik galtzen, eta nahi den guztietan birzikla daitezke. Altzairua aspalditik birziklatzen da, ontziak bereizi eta edukiontzi horietan biltzeko sistema ezarri baino askoz lehenagotik ere bai (1998an izan zen hori). Gaur egun erabiltzen den altzairua orain dela 150 urte ekoiztu zuten lehen aldiz, eta askotariko erabilerak izan ditu lata bihurtu aurretik.



Gero eta arinagoak eta gero errazago birziklatzen direnak

Ecoembes arduratzen da edukiontzi horiak eta urdinak kudeatzeaz, eta behin eta berriz azpimarratzen dute industria gogotik ari dela lanean kontserbatarako latak gero eta arinagoak izan daitezten eta gero eta errazago birziklatzen direnak. Enpac erakundearen datuek diotenez, azken 20 urteetan %28 arindu da laten pisua, eta %33 elikagaietzat erabiltzen diren altzairuzko ontziena.

Katak: 'kutxa gotorak'

Elikagaiak kontserbatzeko latak orain dela 200 urte asmatu zituzten. Sendoak eta seguruak izaki, ezin egokiagoak dira kanpoko erasoei aurre egiteko (gasak, argia, mikro-organismoak), eta barrean daramatenak luzaroan irauten du egoera onean. "Lata bakoitza kutxa gotor bat da", halaxe diote Ecoaceroek. Urte asko igaro dira ordutik, eta laten erabilerak indarrean jarraitzen du, eta indartuz. Elikagai mota askorekin erabiltzen dituzte: frutak, barazkiak eta lekaleak, arrainak, haragi-produktuak eta janari prestatuak. Latan datozen produktu batzuk oso ezagunak dira, artoa, zainzuriak eta atuna, adibidez, baina badira latan ikustera ohituta ez gauden elikagaiak ere: gaztainak, pikuak, olioak, ozpinkiak eta maskotentzako jakiak ere.

Adituek nabarmentzen dute oso zaila dela jakitea zenbat lata ekoizten diren. Hala ere, Ecoacero erakundeak egindako kalkuluen arabera, urtean 200.000 tona altzairu erabiltzen dira latak egiteko.